

UDAL BATZARRAK
ONARTUA

2020 ABE. 28
DIC. 28

emari
APROBADO
POR EL PLENO MUNICIPAL

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA, EIBARKO UDALA 2021-2024



Erakunde Aholagilea

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Aholagilea

GOBIERNO VASCO

Aurkibide

0.- Sarrera	3
1.- Planaren ikuspegia	3
PRINTZIPIO ORIENTATZAILEAK	3
BERMEAK:	4
2.- Lege-esparrua:.....	5
3.- Berdintasunerako V. Planaren ezaugarriak.....	11
4.- Erabilitako metodologia.....	11
5.- Ebaluazioan jasotako ondorio nagusiak	12
EIBARKO UDALAREN BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN EGITURA	14
GOBERNU ONA	14
ESKU-HARTZE ARDATZAK BERDINTASUNAREN ARLOAN	15
ESKU-HARTZEKO ARDATZAK BERDINTASUNAREN ARLOAN	24
I. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA.....	24
1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA ...	24
2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA	28
II. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.....	31
3. PROGRAMA: GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATU AHAL IZATEKO EKONOMIA BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA.....	31
III. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK	33
6. PROGRAMA. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	33
EIBARKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN ZENBATETSITAKO AURREKONTUA	36
PLANA BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK	37
1. Berdintasun Saila	37
2. Sailen arteko egitura politikoa.....	38
3. Sailen arteko egitura teknikoa.....	38
4. Instituzioen arteko koordinazio egitura	39
5. Emakume Mahaia	39
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	40



0.- Sarrera

2015. urtean, Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren ekimenez, Eibarren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana landu zen, 2016ko ekainaren 13an onartu zen eta 4 urteko indarraldia izan zuen.

Eibarko Udalak berdintasunarekin duen konpromisoari eta ordura arte egindako ibilbideari jarraipena ematen zion Plan hark eta 15 jarduera arlo ezarri ziren: Alkatetza, Idazkaritza, Antolakuntza eta langileak, Arlo ekonomikoa, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora, Informatika, Garapen ekonomikoa, Enplegua eta berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak, Euskara, Kultura eta Kirola.

2019an amaitu zen Plan haren indarraldia eta Eibarko Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren ebaluazioa egin du, planteatuko ekintzak zenbat bete diren ikusteko, herritarrengan zer eragin izan duen jakiteko eta etorkizunean Eibarren berdintasunaren alde aritzeko zer hobekuntza proposatu behar diren ezagutzeko.

1.- Planaren ikuspegia

Eibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren (2021-2024) ikuspegiak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean ezarritako printzipio orientatzaileak eta bermeak jarraitzen ditu.

PRINTZIPIO ORIENTATZAILEAK

- ✓ **PARADIGMA FEMINISTA:** Feminismoa da printzipio gidaria, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio guztiak barne; eta feminismoa da emakumeen eta gizonen desberdinkeriak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politikoa.
- ✓ **GENERO-IKUSPEGIA:** Analisi- eta lan-metodologia modura, ikuspegi horrek agerian jartzen ditu eta, ondorioz, ekiteko moduko bihurtzen ditu emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak. Genero-ikuspegiak esan

nahi du emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi dela, eta agenda horrek sistematikoki izango duela kontuan gizonak eta emakumeak behar eta interes ezberdinak dituztela.

- ✓ INTERSEKZIONALITATEA: beren aniztasunean, emakumeak ere desberdinak dira beren artean, generoak eta beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuek (hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazio eta genero-identitatea, adina, dibertsitate funtzionala eta abar) elkarrekikotasunean erlazionatzeko duten moduaren arabera. Intersekzionalitateak berekin dakar ekintza konplexuagoa eta integratzaileagoa proposatzea, zeinak agerian jarriko dituen emakumeen aurkako desberdinkeriak areagotzen diren egoera horiek.
- ✓ EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: Emakumeen ahalduntzea da helburua, tresna eta prozesua; hainbat mailatan egon behar da (pertsonean, kolektiboan, sozialean eta politikoan) eta hainbat alorretatik lagundu behar zaio (politiko-instituzionaletik, eta antolaketaren, gizartearen eta herritarren arlotik).

Nazioartean hitzartutako garapen- eta jasangarritasun-helburuak lortzeko eta emakumeen eta neskatuen bizi-kalitatea hobetzeko, ezinbestekoa da ahalduntzen laguntzea.

- ✓ GIZA GARAPEN JASANGARRIA: giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultzatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu bere ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdietan. Horrek esan nahi du giza beharrak beste batzuk direla, emakumeen premiak gehitu direlako, eta premia horiek lehentasunezko zatitzat jotzen direlako.

BERMEAK:

Eibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean ezarritako bermeak beteko ditu, bere udalerriri esparrura egokituta.

- 1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko benetako konpromiso politikoa.



- 2.- Beharrezko aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak.
- 3.- Politika gardenen izan eta herritarrei kontuak eman, diru publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko.
- 4.- Emakumeen mugimenduek eta herri-mugimenduek, baita eragile ekonomiko eta sozialek ere, politiken garapenean parte hartu eta hitz egin, parte hartzeko eredu demokratikoago batetik, non haien ekarpenak aintzat hartuko diren eta egiaz eragina izango duten.
- 5.- Erakunde guztiek eta horiek osatzen dituzten sailek erantzunkidetasuna izan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera.

2.- Lege-esparrua:

Hainbat lege eta arau juridiko daude, bai nazioartekoak, baita Europakoak, Estatukoak edo tokikoak ere. Hauen guztien helburua, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuneko eskubidearen aitortzea da eta Eibarko Udalaren Berdintasunerako Plan honek horiek hartu ditu erreferentzia eta legezko marko gisa.

- ✓ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- ✓ EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- ✓ 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- ✓ Europako gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

Lehen tituluak definitzen ditu zein diren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, administrazio-maila bakoitzak dituen eginkizunak, Autonomia Estatutuko 10.39 artikuluan, Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c.2. artikuluetan, zein Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Ituneko 3.2 artikulua) ezarritakoak dakartzan eskumenetatik abiatuta; izan ere, aipatutako lege eta arauak betebeharrak ezartzen dizkiete herri-aginteei: bata, emakumeen eta gizonen berdintasuna benetakoa eta erreala izateko baldintzak bultzatu eta oztupoak eraistea, eta, bestea, berdintasuna sustatzea herri-aginteen politika eta ekintza guztietan. Halaber, erakundeen oinarri-oinarrizko erakunde-antolamendua eta hori koordinatzeko

mekanismoak zein izango diren ezartzen du, eta legean jasotako neurriak finantzatzeko irizpideak eta finantza-lankidetzarako egon litezkeen formulak arautzen ditu.

Toki administrazioari dagozkion zereginak:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlearitzaren plangintza orokorraren eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumeneko eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- j) Emakumeei eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.



II. KAPITULUA

Euskal herri administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioa

1. atala. Berdintasunerako erakundeak

10. artikulua. Foru- eta toki-administrazioak

1. Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.

2. Erakunde, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez ondoko eginkizunak beteko dituzte:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagokien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendeand dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.

f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anitzeko jasanen duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezten proposamenak eta sustapen-lana egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.

l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

III. KAPITULUA

Finantzazioa

14. artikulua. Xedapen orokorra.

Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

II. TITULUA

Euskal herri administrazioen eta aginteen jarduketan genero-ikuspegia integratzeko neurriak

I. KAPITULUA

Planifikazioa

15. artikulua. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak.

3. Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute. Udalek banaka zein kide diren edo ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketa horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza tekniko eta dagokion foru-aldundiaren laguntza ekonomikoa izango dituzte, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek.

4. Aurreko bi paragrafoetan aipatutako planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txostena eman behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin.

II. KAPITULUA

Estatistikak eta azterlanak

16. artikulua. Estatistiken eta azterlanen egokitzapena.

Lege honetan zehazten diren xedapenak betetzeko eta genero-ikuspegia eguneroko jardueran benetan integratzen dela bermatzeko, euskal herri-



aginteeek beren azterlanak eta estatistikak egiterakoan honakoak egin behar dituzte:

- a) Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartu.
- b) Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko.
- c) Beste aldagai batzuen eragina ezagutzeko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok agertzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku hartzeko eremuetan.
- d) Sartutako aldagaiak sexu-aldagaia oinarri hartuta ustiatu eta aztertzeko adinako lagin zabalak aurkeztu.
- e) Dauden datuak ustiatu; horrela, esku-hartzearen eremu ezberdinetan emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoera, baldintza, jomuga eta premia ezberdinen berri eduki ahal izango da.
- f) Gaur egun dauden estatistika-definizioak berrikusi eta, hala badagokio egokitu, emakumeen lana aintzatetsi eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipazio negatiboa saihesteko.

Ohiz kanpoko kasuetan soilik justifikatu ahal izango da gorago aipatutako beharkizunetako bat ez betetzea. Horretarako, gainera, txosten arrazoitua eta organo eskudunak onetsia aurkeztu beharko da.

III. KAPITULUA

Langileen gaikuntza

17. artikulua. Euskal herri-administrazioetako langileen gaikuntza.

1. Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarriko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko. Izan ere, horrela, lege honetan biltzen diren xedapenak beteko dira eta, gainera, genero-ikuspegia administrazio-jardunean benetan integratzen dela bermatuko.
2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzearren, euskal herri-administrazioek beren langileak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan trebatzeko planak gertatu eta egikaritu behar dituzte, bai eta erantzukizun politikoa duten pertsonak sentsibilizatzeko jarduketak egin ere.
3. Halaber, euskal herri-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak sustatu eta diseinatzeaz eta aholkularitza tekniko eskaintzeaz arduratzea dakarten plazak okupatzen dituen pertsonal teknikoak esperientzia edota gaitasun zehatza baduela bermatuko dute. Xede horrekin, ezagutzei buruzko berariazko betekizunak ezarriko dituzte plaza horietara sartu ahal izateko.
4. Enplegu publikora sartzeko hautapen-prozesuen gaien artean, euskal herri-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartuko dituzte.

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, zeinak ez diren androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatuta egongo; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoek zeharkatuko dituzte.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa

Lege honek hau dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz: *“printzipio juridiko unibertsala da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aitortu dena”*.

21.1 artikulua zehazten du *“Toki-erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, elkarlanean arituko dira gainerako Administrazio publikoekin”*.

2006ko Europako gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako gutuna Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere bazkideek egin dute (bazkide horietako bat EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte, da) eta *“Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuzakoa da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu”*. Agiri honetan adierazten da:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna pertsona guztien oinarrizko eskubidea da, eta, horrez gain, demokraziarako funtsezko balioa ere bada. Behar den moduan bete dadin, eskubide hori legearen arabera onetsi beharra dago. Era berean, eraginkortasunez erabili behar da, eta bizitzako alderdi guztiak inplikatu behar ditu: politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak

Gutunak 5. eta 6. Printzipioetan dio:

5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko, ezinbestekoa da **generoaren dimentsioa** tokian tokiko eta eskualdeko gobernuen jarduera guztietan **kontuan hartzea**.

6. Baliabide egokidun **ekintza-planak eta programak** beharrezko tresnak dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko.

Tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek behar besteko finantza eta giza baliabideak dauzkaten ekintza-planak eta programak egin behar dituzte.

3.- Berdintasunerako V. Planaren ezaugarriak


INDARRALDIA: 4 urte

LANKETA PARTE-HARTZAILEA: plan honen lanketan udal arloetako teknikariek eta Eibarko emakumeen elkarteek eta elkarte feministek hartu dute parte.

EBALUAGARRIA: indarraldian behar bezala ebaluatzeko diseinatu da plana, beraz, arreta berezia eskaini zaio arloek ebaluazioa egiteko tresna egokiak proposatzeari.

HELBURUAK eta EKINTZA BIDERAGARRIAK: bideragarritasuna gogoan izanda planteatu dira ezarritako helburuak eta ekintzak. Udaleko arloen egiazko jardute-gaitasunera egokitu da helburu eta ekintza kopurua, burutu ahal izateko.

4.- Erabilitako metodologia



Eibarko Berdintasunerako IV. Planaren ebaluazioa

2019an, plana burutzeko epea burutu zenez, Eibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2016-2019) ebaluatzen hasia erabaki zen.

Ebaluatzeko partaidetza-prozesuaren bidez Planeko helburuak eta ekintzak aztertu ziren, zenbat bete ziren eta zer emaitza lortu ziren ikusteko.

Ebaluazioaren xedea, ordea, ez da soilik Berdintasunerako Plana zenbat bete den neurtzea, baizik eta neurri zuzentzaileak ezarri nahi ditu eta hurrengo plana diseinatzeko proposamenak jaso ere bai.

V. Planaren zirriborroaren kontrastea

Zirriborroa Udaleko teknikariek eta Eibarko emakumeen elkarteekin eta elkarte feministekin kontrastatu zen Emakumearen Mahaiaren bidez. Horrela, bada, ekarpenak eta ekintzetarako proposamenak jaso ziren.

Eibarko Berdintasunerako V. Plana egin

Aurreko fasean jasotako ekarpenak eta iradokizunak bildu ondoren, eta egindako ebaluazioa diagnostiko gisa erabiliz, lehenengo zirriborroan sartu ziren aldaketak eta behin betiko agiria egin zen.

5.- Ebaluazioan jasotako ondorio nagusiak

Egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen da udal-planak (berdintasuna, immigrazioa, euskara...) ezagutu eta ezartzea zaila dela, beraz, arlo bakoitzarekin informazio-saioak egin beharra azpimarratu da.

Bada elementu positibo nabarmen bat, izan ere, herritarren gizarte-beharrak artatzearekin zerikusi zuzena duten arloetan, hala nola Gizarte Zerbitzuetan (berdintasuna eta immigrazio saila arlo honetan daude besteak beste), genero-ikuspegitik planifikatzen da eta gainerako arloek ere hala egin dezaten sustatzen da. Horren erakusle dugu 2019an abian jarritako proiektu hau: “Udal-aurrekontuaren definizioan genero-ikuspegia sartzeko prozesuaren hasierako dinamizazioa”.



Alderdi batzuei heltzeko zailtasunak dauden arren (hizkuntza ez-sexista behar bezala erabiltzea edo sexuen arabera banatutako datuen analisia), bi alderdi horietan aurrerapen esanguratsuak egon dira. Salbuespenak ere badiren arren, ahalegin handia egiten ari dira arlo gehienetan hizkuntza zuzena erabiltzeko eta datuak banatuta biltzeko.

Elkarteetako emakumeekin egindako kontrasterako bileran azpimarratu zen Andretxean eskaintzen diren zerbitzuak nabarmen hobetu direla. Lehen 3 edo 4 hilabete irauten zuten ikastaro batzuk orain urte osoa irauten dutela nabarmendu dute. Horri esker, partaide kopurua ere mantendu egin da.

Dinamizatzailearen lanaldia luzatu izanak oso balorazio positiboa izan du, baita dinamizatzaile horrek egiten duen lanak ere. Dena dela, lan-karga handiegia duela uste dute, emakume asko udal-zerbitzuei buruzko kontsultak egitera joaten baitira, ikastaroetan edo beste jarduera batzuetan izena ematera joateaz gain. Hori dela eta, beste pertsona bat kontratatu beharra dagoela uste dute.

Udaleko arloetatik egiten den lanari dagokionez, egun seinalatuetan (M8, A25) Emakumearen Mahaiak programazio berezia egiten duela adierazi zuten, baina uste dute Kultura bezalako arloetatik lan handiagoa egin daitekeela.

Kirolaren arloan adineko emakume asko ari da kirola egitera animatzen, baina ez dute beraien beharretara egokitutako ikastarorik aurkitzen. Emakumezko kirolari gazteenei dagokienez, gero eta gehiago dira eskubaloian, errugbian edo futboleko dabiltzanak, eta oso balorazio ona jasotzen ari dira ikustera joaten diren herritarrengandik. Hori dela eta, Udalaren babesa behar dute kirola egiten jarrai dezaten eta aitortu daitezten.

EIBARKO UDALAREN BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN EGITURA

Jarraian daude planaren indarraldian burutu beharreko ekintzak, egitura eta helburu zehatz batzuei jarraituaz.

Egitura diseinatzeko ardatza EAEko Berdintasunerako VII. Plana izan da eta lau atal nabarmentzen dira: Gobernu Ona, Emakumeen ahalduntzea, Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatu eskubideak bermatzeko eta Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

GOBERNU ONA

I. PROGRAMA

KONPROMISO POLITIKOA: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako borondate politikoa zehaztu eta gauzatzeko aukera ematen dute.

II. PROGRAMA

BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA: Administrazio publikoetako langile guztiek esku hartzeetan genero-ikuspegia sartzeko beharrezko ezagutzak izan ditzaten.

III. PROGRAMA

GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN: Administraziozko prozesuak eta prozedurak berdintasuna lortzeko tresna erabilgarriak izan daitezen.

IV. PROGRAMA

KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA: Berdintasuna zeharka landu dadin administrazio publikoko maila eta arlo guztietan.

V. PROGRAMA

PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA: Herritarren ahotsa, bereziki emakumeena, politika publikoen diseinuan egon dadin.



ESKU-HARTZE ARDATZAK BERDINTASUNAREN ARLOAN

I. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA

II. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA

III. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

6. PROGRAMA. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

GOBERNU ONA**I. PROGRAMA**

KONPROMISO POLITIKOA: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako borondate politikoa zehaztu eta gauzatzeko aukera ematen dute.

BG.2 Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea

2.1. EKINTZA	Etorkizuneko Andretxean ahalduentzeko eta indarkeria arloan prebenitzeko eta sendatzeko zerbitzurako baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bermatzea, esaterako: aholkularitza psikologikoa eta juridikoa, sexu-informazioko bulegoa, etxeko eta zaintzako langileentzako aholkularitza-zerbitzua, denboraren bankua, etab.			
EGITURA ARDURADUNAK	Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak			
ADIERAZLEAK	Ekintza garatzeko aurrekontu egokia esleitzea.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

2.3. EKINTZA	V. Planeko programentzat eta ekintzentzat urteko aurrekontua haztea, baita emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko intereseko gainerako jarduerentzat ere.			
EGITURA ARDURADUNAK	Udal arlo guztietako zinegotziak eta teknikariak			
ADIERAZLEAK	Urteko aurrekontua pixkanaka haztea			
URTEA	2021	2022	2023	2024

2.2. EKINTZA	Plan honen indarraldian "Andretxe berria" irekiko dela bermatzea.			
EGITURA ARDURADUNAK	Udal arlo guztietako zinegotziak eta teknikariak			
ADIERAZLEAK	Andretxe berria irekitzea.			
URTEA	2021	2022	2023	2024



BG.3 Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.

3.1. EKINTZA	Zerikusia duten arlo guztiek Eibarko Berdintasunerako V. Planaren arabera egin behar dituzten ekintzak ezagutzea eta kontuan izatea urteko planifikazioan.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Arlo bakoitzak egin beharreko ekintzen urteko planifikazioa egotea.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

3.2. EKINTZA	Eibarko Berdintasunerako V. Planean jasotako ekintzak ebaluatzen mekanismoak ezartzea.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Udaleko arlo bakoitzeko teknikariek urteroko bilera egin ebaluazioa nola egingo den azaltzeko Udaleko arlo bakoitzari ebaluatzen fitxen eredu ematea.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

II. PROGRAMA

BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA: Administrazio publikoetako langile guztiek esku-hartzeetan genero-ikuspegia sartzeko beharrezko ezagutzak izan ditzaten.

5.1. EKINTZA	Hizkuntzaren erabilera ez-sexista behar bezala erabiltzeko trebatzea.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Trebakuntza egitea eta partaide kopurua.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

BG.5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.

5.3. EKINTZA	Genero-ikuspegitik planifikatzeko trebakuntza.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Trebakuntza egitea eta partaide kopurua.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

5.2. EKINTZA	Generoaren arabera banatutako datuak analizatzeko moduari buruzko trebakuntza, desberdinkeriak zuzentzeko tresna gisa.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Trebakuntza egitea eta partaide kopurua.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

5.4. EKINTZA	Gizarte Zerbitzuen arloko lan-prozeduretan genero-ikuspegia nola sartu jakiteko trebatzea, kasuen arretan eta mota guztietako euskarrietan sakonduz.			
EGITURA ARDURADUNAK	Gizarte Zerbitzuak			
ADIERAZLEAK	Trebakuntza egitea eta partaide kopurua.			
URTEA	2021	2022	2023	2024



III. PROGRAMA

GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN: Administrazioeko prozesuak eta prozedurak berdintasuna lortzeko tresna erabilgarriak izan daitezten.

BG.6 Genero-ikuspegia txertatzea estatistiketan eta azterlanetan.

6.1. EKINTZA	Datuak generoaren arabera banatzea estatistika, azterlan, erregistro eta udal informazio kuantitatibo guztian.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Udalan jasotako datuek genero aldagaia sartzen dute.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

6.2. EKINTZA	Sexu aldagaia formularioetan, eskarietarako orrietan, administrazio-erregistroetan eta datu-baseetan sartzearen egoeraz diagnostiko bat egitea eta aldagai hori sartzeari sartu gabeko kasuetan.			
EGITURA ARDURADUNAK	Berdintasuna			
ADIERAZLEAK	Azterlana egitea eta sexuaren aldagaia sartzeari.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

6.3. EKINTZA	Udal-azterlanak egitean emakumeen eta gizonen egoera desberdina kontuan izatea.			
EGITURA ARDURADUNAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Arloa, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza, Hirigintza, Ingurumena, Obrak, Zerbitzuak, Pegora, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Berdintasuna, euskara, Kultura, Ego Ibarra batzordea, Kirolak, Informatika			
ADIERAZLEAK	Udal-azterlanetan emakumeen eta gizonen egoera desberdina jasotzea azterlanaren arloan.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

BG.7 Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.

7.1. EKINTZA	Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.			
EGITURA ARDURADUNAK	Antolaketa eta Langileak			
ADIERAZLEAK	Berdintasunari buruzko edukiak sartzea hautaketa-prozesuetan.			
URTEA	2021	2022	2023	2024

BG.8 Komunikazioan berdintasuna txertatzea.

